



Askatasun bidea. Le chemin de la liberté. Camino de la Libertad. Freedom Trail.

“COMÉTE” SAREAREN OROITZAPENEZKO X. IBILALDIA EUSKAL HERRIAN BARRENA

2009ko IRAILAren 11, 12 eta 13an

II. Mundu Gerrak iraun zuen urteetan nazien aurkako hainbat talde klandestino – Madrileko aliatuen zerbitzu eta enbaxadek sostengatzen zituztenak – euskal muga gurutzatzen zuten erresistentzia eta alemanen jazarpenetik ihes zoazenak babestu eta berriro aliatuen aldera itzultzeko. Iheslariak usaian ibilbidea Gibraltar edo Afrika Iparralderaino egiten zuten, eta handik London aldera eramaten zituzten. “Cométe” sarea aliatuen abioi-gidariak jasotzen espezializatutako erakundea zen, izan ere, gidariak Londondik etengabe ateratzen baitziren alemaniarren edo hauek hartutako Europaren helburu estrategikoetan bonbak jaurtitzera. Abioi horietako asko Holandara, Belgikara edo Frantziara joaterakoan edo etortzerakoan lurrera botatzen zituzten, eta gidariak bizirik ateratzen baziren, nazien esku erortzeko arriskua izaten zuten, ondorio latzak izaten zituztela erraza da pentsatzea: fusilamenduak, torturak, eta edonola, kontzentrazio-zelaiak. “Cométe” sarea hainbat urtez aritu zen abioi-gidari hauek lurreratzen zituzten toki ezberdinetatik jasotzen. Gero, ofizialki “neutrala” zen Frankoren Espainiara bideratzen zituzten, ondoren, berriro euren tokietara eramateko. Bidaia maiz Bruselan hasten zen, gero Parisera heldu eta muga igaro aurretik, Donibane Lohitzunen eta Ziburun elkartzen ziren. Jarraian, Bidasoa gurutzatuz muga gainditzen zuten, eta horrela bidai luze bati amaiera ematen. “Cométe” sareko partaide zaharrek –tarte mugaren bi aldeetako euskaldun asko– garai haietako abioi-gidariak eta Urdaburu mendizale taldearen laguntzarekin, antolatu dute –aurten hamargarren aldiz – oroitzapenezko ibilaldi hau. Irailaren



12an Ziburu herrian hasi eta biharamunean Erreterian amaituko da, beti ere ondorengo egitasmoaren arabera.

Jada badira 68 urte, 1941ean, “Comète” sortu zela. Ihes-sarea antolatu zuen talde txikia Belgikatik Euskal Herrira etorri zen, eta hemen, hainbat harreman izan zituen Frankoren aurkako euskal talde batekin, hauek lagundu baitzioten Bidasoa nondik pasa behar zen erakusten eta iheslariak jasotzen. Hala, uda hartan, Dedée De Jongh belgikar emakume gaztea Bilbora etorri zen, eta euskal taldearen laguntzarekin, britainiar Kotsulatuan azaldu zen eta herrialde hauetako zerbitzu sekretuekin harreman sendoak hasi zituen “Comète” erakundea sendotu eta egituratzeko, zeinak, hainbat gora-behera izanagatik, bizirik iraun baitzuen alemanek 1944ko abuztuan Frantzia utzi zuten arte.

Oroitzapen ibilaldi honetara, beste urteetan bezala, abioi-gidari zaharren ordezkari bat eta “Comète” sareko partaideak etorriko dira. Eta sendi eta lagunak osatuko duten “ibiltari” talde polit batek Ziburu herritik Erreteriarako ibilbidea oinez egingo du bi egunez, beti ere erantsirik doan egitasmoan azaltzen den moduan, nazi-faxismoaren aurka ikuspegi eta nazionalitate ezberdinetatik esku hartu zutenei omenaldia eskaintzeko. Horrela, bertan parte hartu nahi duen orok ondorengo helbideetara deitu behar du:

Informazioa eta izen ematea

Juan-Carlos Jimenez de Aberasturi
Erreteriarako Udala
Udal Agiritegia
tel : 943 449 626
jcaberasturi@errenteria.net

Jeannot Dassié
117, rue des 4 cantons
64600 Anglet
tel : 05 59 03 51 48
jedassie@numericable.fr

Beñat Castet
2, impasse Kexilo
64122 Urrugne
tel : 05 59 47 08 50
benat.castet@gmail.com



"Comète" sarearen X. ibilaldia Euskal Herrian barrena

2009ko irailaren 12 eta 13an

**Ziburu herritik Errenteriara "Comète" sareko mugalariek
eta II. Mundu Gerran aliatuen abioi-gidariak erabilitako
bidearen oroitzapen ibilaldia. "Comète" sarearen lagunek
eta Urdaburu Mendizale Elkarteak antolatua.**

EGITARAUA

2009ko irailaren 11, ostirala

10:45ean: Donibane Lohitzuneko hildakoen monumentuan ekitaldia.

11:00etan: Donibane Lohitzuneko Herriko Etxean harrera-ekitaldia.

16:30ean: Baionako Leon Saindu hilerrian Dassié familiaren hilobian lore-eskaintza.

17:00etan: Angeluko "Villa Voisin"en aitzinean elkarretaratzea.

17:30ean: Angeluko Herriko Etxe aitzinean biltzeko deia, "Comète" sarearen plaka-oroigarriaren aurrean.

18:00etan: Hildakoen monumentuan ekitaldia.

18:30ean: Angeluko Udaletxean elkarretaratzea, plaka oroigarriaren aurrean.

20:00etan: Baserriko elikagaiak jatea Angeluko Herriko etxean.

22:00etan: Donibane Lohitzunera itzultzea.



2009ko irailaren 12a, larunbata

9:00etan: Socoa-Ziburuko hilerrian elkartu eta lore-eskaintza egingo da Kattalin Agirre eta Florentino Goikoetxearen hilobietan.

9:30ean: Ziburuko Udalak gosaria eskainiko die ibiltariei.

10:00etan: Ibilaldiaren hasiera.

12:00etan: Ekitaldia Urruñako hildakoen monumentuan eta hamaiketakoa, Urruñako Udalak eskainia.

12:30ean: Atsedentxo zerbait jateko.

14:00etan: Urruñako Bidegainberri baserri aldera martxa. Baserri horretan elkartzen ziren iheslari guztiak mendirantz abiatu aurretik eta bertan atxilotu zituzten Franxa Usandizaga eta Juan Larburu. Jarraian, Bidasoa aldera martxa. Adinekoak eta hauen laguntzaileak autobusez eramango dira "San Migel" deituriko paraje aldera.

17:30ean: "San Migel" deituriko paraje-inguruan Bidasoa gurutzatuko da. Segidan, atsedena eta sardina jatea.

19:00etan: Ibiltariak autobusez joango dira Irunera eta adinekoak Donibane Lohitzunera itzuliko dira.

2009ko irailaren 13a, igandea

8:00etan: Ibiltariak Bidasoatik irten eta Errenteria aldera abiatuko dira mendiz.

11:00etan: Ibiltari eta adinekoen arteko topaketa Aiako Harriko beheko zelaietan.

13:00etan: Oiartzungo "Sarobe" baserrian elkarretaratze eta hamaiketakoa.

15:00etan: Bazkaria parte-hartzaile guztientzat Errenteriako elkarte batean (gehienez 70 lagun).

18:30ean: Donibane Lohitzunera autobusez itzultzeko ordua.



ANTOLAKETA

Asteburuan joan-etorriak ondo egin asmoz autobus-zerbitzua antolatu dugu ibiltariak larunbatean eta igande goizean irteera tokira eramateko. Baita igande arratsaldean Errenteriatik bueltan Donibane Lohitzuneraino joateko ere.

Era berean, komenigarria da igandean Errenterian egingo den bazkarian zenbat jendek parte hartuko duen.

Beraz, bazkarian parte hartu nahi dutenek toki erreserba egin behar dute:

2009ko abuztuaren 31 baino lehen

PREZIOAK

- **1. aukera: 80 €** 3 egunetarako. Honen barruan sartzen dira: asteburuko joan-etorriak, larunbateko hamaiketako eta igandeko bazkaria.
- **2. aukera: 50 €** 2 egunetarako. Honen barruan sartzen dira: bi egunetako garraioa, larunbateko gosaria eta igandeko bazkaria.
- **3. aukera: 25 €** Soilik iganderako: gosaria, bazkaria eta autobusez itzulera.
- **4. aukera: 15 €** Soilik larunbaterako: gosaria eta autobusez itzulera.

OSTATUA

Interesdunei jakinarazten diegu prezio onean gaua pasatzeko aukera izango dutela ondorengo aterpetxeetan:

- Ostiral eta igande gauean Urruñan:
"Domaine de Camieta" delakoan.
Chemin de Souhare- 64122 Urruña
Prezioa: 27,10 €(gaua eta gosaria/ nork bere eskuoihala eraman behar du)
- Larunbata gauean, Hondarribian:
- Elkano aterpean.
Prezioa: 13,08 €(gaua eta gosaria).

Erreserbak ibilaldia antolatu dutenen bitartez egin behar dira.



OHAR GARRANTZITSUA:

Zailtasun handiegirik gabeko ibilaldia da. Hala ere, komenigarria da mendian ibiltzeko ohitura izatea, jantzi egokiak edukitzea (mendiko botak, euritako arropa) eta antolatzaileek emandako gomendioak kontuan hartzea. Beraz bada, martxan parte hartu behar dutenei oinetako eta jantzi egokiak eramatea aholkatzen diegu.

Ibilbide guztian janari faltarik izango ez denez, nahikoa izango da ura, fruitu-lehorrak edo energia-emaile janari-motaren bat eramatearekin.

Ibiltari bakoitzak zeharkaldia bere ardurapean egingo du, eta ondorioz, bere aseguruia eduki beharko du. Sekulan zerbait gertatuz gero, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango.



Izena emateko orria

Izena:

Deitura:

Helbidea

Telefonoa:

Email helbidea:

1. aukera: 80 € 2. aukera: 50 € 3. aukera: 25€ 4. aukera: 15 €

Aukeraketa biribil batekin markatu.

Edozein kasutan, ezinbestekoa izango da ordainketa ibilaldia hasi aurretik egitea. Ordainketa moduak:

- **Banku bidezko transferentzia BAMIren kontu korronte honetara:**

Code Banque	Code guichet	n° compte	clé RIB
17959	00027	70238 026 501	01

IBAN (International Bank Account Numbere)

FR76 1795 9000 2770 2380 2650 101 BAMYFR22

- **Frantzian ordaingarria den banku-txekearen bidez.**

Jakinarazten dut badakidala ibilaldia zein baldintzetan egingo dudana.

.....n, 2009ko.....ren.....e/a/n.

OHARRA: Ordainketa eta izenematea 2009ko abuztuaren 31 baino lehen egingo da.